

Barrundiako Udal Aldizkaria

16. alea, 2016ko martxo



EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIARI EZ



Barrundiako Udalaleko aurrekontuak

Herritarrekin bilerak egin dira
aurrekontuen partida bat zertan
inbertitu erabakitzeko

3.orr.

8 de marzo

Día internacional de las
mujeres

7.orr.

¿Sabias qué?

La historia de la embrollada
venta de la antigua casa
consistorial de Audikana

14-17 orr.

Aurkibidea Indice

Editoriala	2
Udala	3
Administrazio Batzordeak	9
Gizartea	10
Ba al zenekien?	14
Agenda	18
Liburutegi txokoa	19
Umeen txokoa	20

Barrundiako Udal Aldizkaria

LG zk. VI-211/2012

16. zenbakia. 2016ko martxo

Argitaratzailea:

Barrundiako Udal
komunikazio taldea

Diseinatzailea:

Aldizkariko lan taldea

Inprimitzailea:

San Martín impresión digital



Editorial

Ha pasado más de un siglo desde que las mujeres trabajadoras en fábricas textiles de EEUU se manifestaran y se sumaran a la huelga para denunciar sus precarias condiciones laborales. Estas circunstancias unidas al fatal incendio de una de esas fábricas que acabó con la vida de más de 100 mujeres, justificaron la aprobación en 1910 del Día Internacional de la Mujer Trabajadora. En la actualidad hemos eliminado el adjetivo de Trabajadora, y no es casualidad. El 8 de marzo, homenajeamos, reconocemos y ponemos en valor a todas las mujeres del mundo, porque si bien muchas trabajan fuera del hogar percibiendo un salario, la mayoría lo hace gratis en su propia casa, limpiando, cocinando, cuidando, queriendo, ...

Esta realidad no es ajena en nuestros pueblos de Barrundia, donde la mujer ha trabajado y sigue trabajando dentro y fuera del hogar y en el campo. Y donde se sigue luchando por lograr una sociedad más igualitaria, en la que las mujeres cuenten con las mismas oportunidades que los hombres. Contamos con dos alianzas: el grupo de mujeres Barrundiako Emakumeak, y el recién aprobado I Plan para la igualdad de Mujeres y Hombres en la Llanada Alavesa. .

barrundialdizkari@gmail.com

Udaleko web orrian aldizkaria era digitallean ere izango duzu

Editorial

Mende bat baino gehiago igaro da Estatu Batuetako ehun-lantegi eta emakume langileek manifestaldiak eta grebarekin bat egin zutelaren lan-baldintza eskasak salatzen asmoz. Egoera hau ez ezik, lantegi horietako batean sute larria gertatu zen eta 100 emakume baino gehiago zendu ziren. Ondorioz, 1910ean Emakume Langileen Nazioarteko Eguna onartu egin zen. Gaur egun Langile adjektiboa ezabatu egin dugu, eta ez da kasualitatez izan. Martxoaren 8an, omenaldia egin, aintzat hartu eta baloratu egiten ditugu munduko emakume guztiak; izan ere, askok etxetik kanpo lan egiten badute ere soldata baten truke, gehiengoak dohan egiten du lan bere etxean bertan,

garbitzen, sukaldatzen, zaintzen, maitatzen,...

Errealitate hau ez da ezezaguna Barrundiako geure herrietan, non emakumeak lan egin duen, eta lan egiten jarraitzen duen etxetik kanpo zein barruan, baita soroetan ere. Herri hauetan borrokatzen jarraitzen dute berdintasunezko jendarte baten alde, emakumeek gizonek dituzten aukera berdinak izan ditzaten asmoz. Bi aliantza ditugu: Barrundiako Emakumeen Taldea, eta duela gutxi onartu zen Arabako Lautadako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana.

Ale honetako kolaboratzaileak - Colaboraciones

Aldizkariko komunikazio taldea, Udal taldea, Euskara teknikaria, kultur teknikaria, Berdintasunteknikaria, Liburutegiko teknikaria, Barrundiako Emakumeen Taldea, Herediako Administrazio Batzordea, Alicia Barriocanal, Fernando Aranaz, Oxigeno Euskarari Taldea, Jaime Ortiz de Urbina, Larreako Administrazio Batzordea, Santi Txintxurreta, Alfonso Martín, Blanca Segura, Barrundiako Farmazia, Eneritz Ibarra, AmaLur Maitia Elkartea

UDAL AURREKONTUAK - PRESUPUESTOS MUNICIPALES

Barrundiako herritarrek erabaki dute aurrekontu osoaren 20.000 euro inguruko kopurua, zertara bideratuko duen Udalak. Besteak beste, garraioaren beharren azterketa egitea proposatu dute.

Barrundiako Udalak inbertsioak egiteko diru sail bat herritarren esku uztea erabaki du aurten. Eurek erabaki dute zertara bideratu inbertsioetarako partida hori. Partehartzea urtero bermatu duten arren, modu zuzenagoan egitea erabaki dute eta herritarrek eurek izan dute azken hitza. Horretarako, hainbat bilera izan dituzte eta bildutako proposamenen artean, besteak beste, garraioari buruzko azterketa bat egitea erabaki dute.

Azaroan eta abenduan zehar hainbat bilera izan zituzten herritarrek udalerrian –Gebaran, Marietan, Ozetan eta Heredian– eta bertan proposamen ugari jaso zituzten, baita idatziz ere, inbertsioen ataleko 20.000 euroak zertan erabili erabakitzeko. Urtarrilean izan zuten azkeneneko bilera herritarrekin. Azkenik proposamen guztiak hiru multzotan sailkatu dira: garraioa, turismoa eta ingurugiroa, eta kultura eta euskara”. Hamabost bat lagun elkartu ziren proposamen guztiak eztabaidatzeko.

Garraioaren azterketa

Garraioaren ingurukoak izan ziren proposamenetako batzuk eta horregatik aurten horren azterketa egingo dute, horretarako baliatuko dute inbertsioen diru sail horren atal bat: “Udalerriko biztanleek dituzten beharrak ezagutu nahi ditugu, datorren urtean horiek nola garatu erabakitzeko” adierazi dute udaleko arduradunek. Barrundiako Udalak hiriburura doan garraioaren eskuduntzarik ez duenez, udalerrri barruko garraioa edota Agurainekin lotzen duena aztertuko dute, etxez etxeko galdetegiarekin. Beharren arabera, beste autobus bat jarri edota kotxeak partekatzeko modua abiatu daitezkeela azaldu dute.

Turismoaren atalari dagokionez, bestalde, intereseko hiru gune –Aldaia mendizerra, Garaioko parkea eta Zadorra eta Barrundia ibaiak– sustatzeko proposamenak jarri dituzte mahai gainean. Eta, besteak beste, udaletxe zaharrean, gune horien inguruko interpretazio zentro bat osatzea proposatu dute. “Gaur egun bertan dagoen ekonomatoarekin batera, hiru guneen interpretazio zentroa antolatzea eta, horrez gain, turismo bulego bat prestatzea da asmoa”.

Udaleko arduradunek gogoratu moduan, proposamen guztiak “gehiago xehetu” nahi dituzte udal taldean eta aurrekontuak onartu nahi dituzte aste santu aurretik. Esperientzia oso positiboa izan dela diote, izan ere, parte hartze handia izan du prozesuak. Modu honetan, herritarrak “bezero” izatetik, haiena den diruaren kudeaketan parte hartu dute.

Del total del presupuesto del Ayuntamiento, se ha decidido a qué destinar una partida de unos 20.000 euros entro los y las barrundiarras. Entre otras propuestas, se recoge realizar un análisis sobre la necesidad de transporte.

El Ayuntamiento de Barrundia, este año a querido reservar una partida para realizar inversiones requeridas por los y las habitantes. Entre todos se ha decido en qué emplear esa partida de dinero. A pesar de que todos los años se garantiza la participación ciudadana en el diseño de los presupuestos, este año se ha decidido realizarlo de manera más directa y han sido los participantes quienes han tenido la última palabra. Esto se ha llevado a cabo mediante reuniones y entre las propuestas recibidas, entre otras, se realizará un análisis sobre la situación del transporte en Barrundia.

En los meses de noviembre y diciembre se realizaron varias reuniones en el municipio - Gebara, Marieta, Ozaeta y en Heredia- en las cuales se recibieron numerosas propuestas, varias incluso por escrito, para definir en qué inversiones utilizar los 20.000 euros disponibles. La última de estas reuniones se realizó en enero.

Todas las propuestas se agruparon en tres sectores: transporte, turismo y naturaleza y cultura y euskara. Un grupo de unas 15 personas se reunió para discutir todas las propuestas.

Se realizará un análisis de las necesidades de transporte en Barrundia y hasta Agurain, mediante una encuesta. En cuanto al turismo se ha propuesto crear un centro de interpretación de la naturaleza y además una oficina de turismo.

Los representantes del ayuntamiento nos recuerdan que aún hay que “afinar” más todas las propuestas y se quieren aceptar los presupuestos antes de Semana Santa.

BIOMASAREN INAUGURAZIOA

Badira hiru urte udal eraikinak berotzeko Biomasuren instalazioaren proiektuarekin hasi ginela.

Eta dagoeneko badira bi hilabete funtzionamenduan dagoela. Proiektu honen bitartez gure baliabide naturalak erabiliz, gure mendietako egurrara hain zuzen, burujabetza energetikorako urrats garrantzitsu bat eman dugu.

Guzti honen berri emateko MARTXOAREN 20an, igandea, goizeko 12.00etan Udaletxean egingo dugun instalazioaren funtzionamendua azaltzeko egingo dugun aurkezpenerako gonbitea egin nahi dizuegu barrundiar guztiei.

Hace tres años que comenzamos con el proyecto de instalación de Biomasa para calentar las instalaciones municipales.

Y ya lleva dos meses en funcionamiento. A través de este proyecto hemos dado un paso muy importante hacia la autosuficiencia energética utilizando nuestros propios medios naturales, esto es, la madera de nuestros montes.

Para darlo a conocer, el domingo 20 de MARZO a las 12.00 del mediodía queremos invitar a todos y todas las barrundiarras a la presentación del funcionamiento de la instalación.



GIMNASIOKO ORDUTEGI BERRIA. NUEVO HORARIO GIMNASIO

MONITOREAREN ORDUTEGI BERRIA

Astelenetan, 17:30 –19:00

Ostegunetan, 11:00-12:30

Ostiraletan, 19:15-20:45

NUEVO HORARIO

(de asesoramiento del monitor)

Lunes, 17:30 –19:00

Jueves, 11:00-12:30

Viernes, 19:15-20:45

EZAGUTU UDALAREN WEB ORRIALDE BERRIA



bisita ezazu
barrundia.eus

BARRUNDIAK ZABORRA ESTU HARTUZ - EL TXOKO DEL COMPOSTAJE

¿Qué hacer con la ceniza?

Se trata de un asunto un tanto problemático en algunos hogares:

- en el contenedor gris puede generar y ha generado muchos incendios,
- desde Diputación no se aconseja echar al contenedor de residuos de construcción. El motivo es “ que por su alcalinidad podría dañar al contenedor de metal” nos dice un hombre de Larrea.
- y la Ley de Montes prohíbe su vertido en el monte por posibles incendios.

En general la ceniza de leña contiene mucho calcio y potasio, y también sílice, magnesio, fósforo; nutrientes muy interesantes para las plantas. Pero para hacer un aporte de cenizas para aprovechar estos minerales debes conocer primero la tierra de tu huerto. Si tu tierra es muy caliza es totalmente desaconsejable echar ceniza, porque aumentará esa tendencia; si es muy arcillosa o limosa, podrás añadir un puñado por metro cuadrado envolviéndola superficialmente, añadir más puede desestructurar esa tierra. Respecto a las dosis en suelos ácidos, algunos expertos recomiendan no excederse de 100 gramos por cada m2 aproximadamente. Pero también algunos autores nos hablan de que 2-3 Kg/m2 y año no genera problemas. En Suecia, Dinamarca y otros países las cenizas de grandes productores se granulan y esparcen con la abonadora en las plantaciones forestales.



Las dosis se puede aumentar con las fresas y frambuesas, o al pie de los arbustos, frutales y rosales. Una parte de ceniza con 12 partes de agua mezcladas y pulverizadas en los frutales es eficaz contra el pulgón. En cuanto a poner ceniza en el compost, no es necesario porque el compost tiende a estar equilibrado y poner ceniza lo apelmaza, le resta nitrógeno y lo acidifica. Por supuesto debe proceder de quemar leña, nunca de maderas tratadas ni contrachapados, tampoco carbón vegetal para barbacoa, ni cigarrillos, todas ellas contienen residuos tóxicos.

Dejar ceniza sobre la tierra como barrera de babosas, solo sirve mientras esté seca. Con un simple rocío, y más con la lluvia, esa ceniza ya no será un obstáculo y quedará una materia que asfixia la tierra que tiene debajo y la endurece.

La ceniza se puede echar a una zona del gallinero, en un espacio cercado y techado donde mezclada con arena les encantará para ir a despiojarse (visto en Larrea).

Aun así, pueden no ser soluciones para todos.

Otra solución alternativa recogida en Etura y en Larrea es hacer montones en puntos concretos y seguros y dejar que con el tiempo vayan perdiendo alcalinidad (se vayan lavando). Si hay humedad crecerán ortigas que transformarán las cenizas en un sustrato más apto para el huerto.

También hay quienes recuerdan su uso para la colada en Ozaeta y Heredia (donde podemos ver en la alle Diagonal el recipiente propio). Y aunque es muy difícil, incluso se puede hacer jabón potásico con ella.

5

Errautsekin, zer egin?

Zenbait etxetan arazo bihurtu da:

- . zakarrontzi grisean su eragin dezake errautsak, eta eragin egin du.
- . eraikuntzaren hondakinekin nahastea ez du gomendatzen Foru Aldundiak . Larreako norbaitek esan bezala, errautsa alkalinoa da eta metalezko kontainera kaltetu ahal du.
- . Mendian botatzea Mendi-Legeak galarazten du, sua eragin baitezake.

Egurraren errautsak kaltzio eta potasio ugari izaten ditu, baita silizea, magnesioa eta fosforoa ere; mineral guzti horiek landareentzako oso egokiak dira. Baina mineral horiek baliatzeko eta zeure baratzera bota aurretik, bertan dagoen lurra ezagutu behar duzu.


Conjunto de datos sociolingüísticos de la Cuadrilla de la Llanada Alavesa

En los últimos años, el conocimiento de euskara en la Cuadrilla de la Llanada Alavesa ha crecido notablemente. Este aumento se debe, en gran medida, a la escuela y también al enorme esfuerzo realizado en el ámbito de la euskaldunización y alfabetización de adultos. Actualmente, alrededor del 30% de la población es euskaldun y casi el 25% es cuasi-euskaldun. Se ha producido un gran crecimiento en las últimas décadas.

Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitza Estadistikak
Egilea: Soziolingüistika Klusterra

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Euskaldunak	586	7%	724	9%	1.340	16%	1.907	21%	2.876	27%	3.719	30%
la-euskaldunak	908	11%	1.222	15%	1.419	17%	1.999	22%	2.467	23%	3.182	26%
Erdaldunak	6.695	82%	6.060	76%	5.665	67%	5.279	57%	5.317	50%	5.421	44%
Hiztunak	8.189	100%	8.006	100%	8.424	100%	9.185	100%	10.660	100%	12.322	100%

El análisis por edades muestra unos datos aún más significativos ya que actualmente, en Agurain, el 80% de la población menor de 14 años es euskaldun y el 16% es cuasi-euskaldun; el 45% de la población entre 15 y 34 años es euskaldun y el 30% es cuasi-euskaldun. Por lo tanto, en la población menor de 40 años la proporción de población euskaldun es del 60% y la de población cuasi-euskaldun es del 25%.



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitza Estadistikak
Egilea: Soziolingüistika Klusterra

Sin embargo, en la calle y en los hogares no se nota la influencia de ese crecimiento, es decir, a pesar del aumento en el número de euskaldunes y cuasi-euskaldunes, el euskara no se utiliza en los hogares, las familias y las calles, y tampoco se transmite a las nuevas generaciones.

Las cifras de uso y de conocimiento no concuerdan: en el conocimiento las cifras son mayores y en el uso son pequeñas, no se refleja el mayor conocimiento en el uso del euskara.

Uso de la lengua en casa:

El Uso de la lengua en casa (2011 EUSTAT) no muestra una situación positiva.

Los avances en la escuela y la euskaldunización y alfabetización de adultos deben ser reforzados en la familia, que es un espacio decisivo para afianzar las costumbres y la identidad lingüística. Por eso las parejas jóvenes son nuestro objetivo, porque formarán nuevas familias y podrán asegurar esa transmisión familiar. Hay que señalar que, aunque en casa no utilizan la lengua, estas parejas están compuestas mayoritariamente por personas que conocen el euskara (euskaldunes).

Es evidente que la lengua que se transmite de generación en generación en la Cuadrilla de la Llanada Alavesa es el castellano. Y el reto principal de los próximos años será darle la vuelta a esa situación. Eso, y difundir el euskara dentro de nuestros pueblos, cambiar los hábitos lingüísticos de la población euskaldun y utilizar el euskara cada vez más.

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAKO DATU SOZIOLINGISTIKOEN BILDUMA

Euskararen Ezagutzaren bilakera

Azken urte hauetan Arabako Lautadako Kuadrillan euskararen ezagutzak gora egin du nabarmen. Gorakada hori, neurri handi batean, eskolari zor zaio, jakina, hala nola, helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrean egindako lan eskerhari. Gaur egun populazioaren % 30 inguru euskalduna da, eta % 25 inguru ia euskalduna. Hazkunde izugarria azken hamarkadatan emandakoa.


Azterketa adinka eginez gero, datu hauek askoz ere esanguratsuagoak dira, ze gaur egun, Aguraingo 14 urtetik beherako biztanleen % 80 euskaldun osoa da eta % 16 ia-euskalduna, eta 15-34 urte tartean % 45 euskaldun osoak eta % 30 ia-euskaldunak. Beraz 40 urtetik beherakoen artean euskaldun osoen kopurua % 60 ingurukoa da eta ia euskaldunena % 25 ingurukoa.

Baina, bertoko kaleetan eta etxeetan ez da hazkunde horren eraginik nabaritzen, hau da, gero eta euskaldun edo ia-euskaldun gehiago dagoen arren, etxeetan, familiar artean eta kalean ez da erabiltzen, ez eta belaunaldi berriei transmititzen ere. Erabilera eta ezagutza datuak ez datoz bat, ezagutzan ehuneko handiak baditugu ere, erabileran ehuneko horiek oso txikiak dira, ez dauka apenas isladarik ezagutzak erabileran.

Euskararen erabilera etxeetan:

Etxeko erabilerak (2011 EUSTAT) ez digu pozteko moduko egoerarik erakusten, ikusi bestela aldameneko grafika:


Eskola bidez edota helduen euskalduntze bidez eman ditugun urratsak familia bidez ere indartu behar ditugu, gune erabakigarria baita ohiturak finkatzeko eta identitate-hizkuntza bihurtze aldera.



Horrela, bikote gazteak, ama izateko sasoian daudenak ditugu helburu, horiexek baitira egungo familia berriak sortuko dituztenak eta, ondorioz, familia bidezko ondoregotaratzea berma dezaketenak. Eta esan beharra dago, nahiz eta etxean erabili ez, bikote gazte hauen gehiengoa euskalduna dela.

Ikus ditzagun, esaterako, ama hizkuntzari buruzko datuak (2011 EUSTAT)

Bistan denez, gaztelera da Arabako Lautadako Kuadrillako etxeetan belaunaldiz belaunaldi transmititzen den hizkuntza nagusia. Eta horri buelta ematea izango da datorren urteetan eskuartearen izango dugun erronka nagusia. Hori eta euskara gure udalerrietan barne hedatzea, euskaldunen hizkuntza ohituraz aldatuz eta euskara gero eta gehiago erabiliz.



Martxoak 8

2016ko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko eguna, Barrundiako udalbatzak bi mozio onartu ditu otsaileko ohiko bilkuran.

Batean "Toki bizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko gutun europarra" eta bestean "Barrundia udalerrian aurrera eramango diren 7 konpromiso".



Con motivo del 8 de marzo, día internacional de las mujeres, el pleno del Ayuntamiento de Barrundia, en su sesión de febrero ha aprobado dos resoluciones:

En la primera se aprueba la adhesión a "la Carta europea para la igualdad entre mujeres y hombres en la vida local" y en la segunda se aprueban "siete compromisos que el Ayuntamiento de Barrundia se propone llevar adelante."

OXIGENOA EUSKARARI 2016

Barrundiako gaztetxoenen artean euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin, aurten ere Oxigenoa Euskarari ekimena martxan jarriko da.

Ekimen honetan euskara eta mendia uztartzen dira, igandetan udalerrian eta inguruan egiten diren irteeran bidez, irteeretan natura eta kulturen inguruko gai ezberdinak jorratzen dira.

Ekimenaren lehen irteera apirilean izango da, izen emate epea Martxoak 17an irekiko da. Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko idatzi mezu bat baieuskararibarrundia@gmail.com

OXIGENOA EUSKARARI 2016

PROGRAMA

APIRILA

HEREDIA "5 PUTZUETAKO IBILBIDEA"

MAIATZA

GARAIORA BIZIKLETAREKIN

EKAINA

ASTEBURUKO EGONALDIA EGINON

IRAILA

ORIENTAZIO KIROLA GARAION

URRIA

ETXABARRI URTUPIÑATIK IBILBIDEA

AZAROA

GIPUZKOARA OINEZ. GATZAREN
MUSEOA



INFORMAZIO BILERA

MARTXOAK 17 (OSTEGUNA)
ARRATSALDEKO 19:00-retan
BARRUNDIAKO UDALETXEAN
(OZAETAN)

ZABORRAREN TASAN HOBARIA ESKATZEKO EPEAREN AMAIERA FIN PLAZO DE SOLICITUD DE BONIFICACIÓN EN LA TASA DE BASURAS

Uztailaren 1ean konpostatze jarduerak egiteagatik ematen den hobaria eskatzeko epea amaituko da. Etxebizitzako titularrek eskatu behar dute (haiiek edo norbait haien izenean). Iaz eskaria egin zuten horiek, aurten ere eskaera errepikatu behar dute hobaria jasotzeko. Iaz onuradunak 85 izan ziren. Ea aurten bikoizten dugun!!!

Recordamos que el próximo 1 de julio se termina el plazo para solicitar la bonificación por compostaje en la tasa de basuras. Esta bonificación se debe solicitar todos los años. El año pasado fueron 85 las personas que se beneficiaron y queremos que este año sean más las familias que apuesten por ello.





La cooperativa energética GoiEner ha impartido dos charlas en Heredia, y apuesta por recuperar la soberanía energética en los campos que actualmente están liberalizados: la comercialización (compra de energía) y la generación de energía. En cada sesión participaron alrededor de 12 personas; la primera trató el tema de la soberanía energética y la segunda un taller para conocer y entender cualquier factura de la compañía eléctrica.

La energía, eléctrica sobre todo, se ha convertido en un producto básico en la sociedad de hoy día, al igual que el agua y los alimentos.

El objetivo de GoiEner es recuperar el control de este recurso por parte de la ciudadanía, resaltar su importancia e impulsar un consumo energético responsable y sostenible.

Al ser una cooperativa sin ánimo de lucro, el beneficio obtenido poniendo en el mercado electricidad verde volverá a la cooperativa y se utilizará según el objetivo establecido en la asamblea de socios.

Así mismo, las personas / entidades asociadas podrán invertir en proyectos de generación de energía renovable, que sería consumida dentro de la propia cooperativa.

El objetivo final es que la energía producida por la cooperativa sea igual al conjunto de la energía consumida por sus asociadas, que se trate de energía renovable y que su consumo sea realizado de forma racional y eficiente.

www.goiener.com

Goiener Kooperatibak bi hitzaldi eman ditu Heredian otsailean. GoiEner-ek subiranotasun energetikoa berreskuratu nahi du egun sektore elektrikoan liberalizatuta dauden esparruetan sartuz: merkaturatzea (energia erosketa) eta sorkuntza.

Saio bakoitzean 12 bat lagun elkartu dira; lehenengoan subirotasun energetikoari buruz jardun zuten, eta bigarrenean faktura elektrikoak irakurtzen jakiteko tailerra egin zuten.

Energia, batik bat elektrikoak, egungo gizarteetako oinarritzko ondasun bilakatu da, ura edo elikagaiak bezain beharrezkoa. GoiEner-en xedea hiritarrek oinarritzko ondasun honekiko kontrola berreskuratzea da, honen garrantziaz jabetzea, energiaren kontsumo arduratsu eta iraunkorra bultzatuz.

Mozkin asmorik gabeko kooperatiba izanik, elektrizitate berdea merkaturatuz lorturiko etekinak kooperatibara itzuliko dira berriz, eta bazkideek erabakiko dute batzarretan zertara bideratu diru horiek. Era berean, bazkideek sorkuntza berriztagarriko egitasmoetan inbertitu ahal izango dute, kooperatibak berak kontsumituko lukeelarik ekoizpen hori.

Azken helburua kooperatibak sorturiko energia kopurua bazkideek kontsumitzen duten kopuru bera izatea da, hori guztia energia berriztagarrien bitartez eta ahalik eta kontsumo arrazional eta eraginkorrena eginez.

JOAN PEREZ DE LAZARRAGA

Barrundiako Udalak eta Larreako Kontzejuak Joan Perez de Lazarragaren omenezko plaka berritu dute. Jatorrizko plaka hondatuta zegoenez, bi erakundeek plaka berria jartzeko erabakia hartu zuten 2015eko abenduan eta azken astean lanak bukatu ondoren, dagoeneko ikusgai dago Larrean, Perez de Lazarragaren jaiotetxe ondoan.

Joan Perez de Lazarraga Larrean jaio zen 1547 edo 1548an eta gaur egun euskaraz ezagutzen dugun bigarren testu zaharrena idatzi zuen.

Ekintza honekin, Barrundiako Udalak eta Larreako kontzejuak omenaldi xumea egin nahi izan diote barrundiar idazle euskaldunari.



ZAINDU DITZAGUN SAGARRONDOAK

Animados por la experiencia exitosa de hacer zumo del año pasado hemos organizado un plan de formación para el cuidado de los manzanos para todas aquellas personas interesadas. El plan abarca todo el año y consta de tres sesiones (invierno, primavera y finales de verano) para repasar los trabajos a hacer en cada época. Contamos con la colaboración de un técnico asesor en fruticultura con el que hemos diseñado el plan. Lo hemos organizado entre el Ekonomato de Barrundia y el Ayuntamiento y lo hemos coordinado con ASSE (Asociación de fruticultores de Alava)

Gure sagarrondoak zaindu eta ugaltzea, horixe nahi dugu Barrundian. Eta horretarako antolatu dugu "Sagastietako jardueren kurtso teoriko-praktikoa". Sagastien zainketak historia eta tradizio luzea izan du gure inguruotan - gure toponimia lekuko-; Barrundiako Udala duela urte batzuetatik Bizi Sagardoa kultur proiektorekin batera; pasa den urtean sagar urtea izan zen eta sagar zukua, dultzea, sagardoa...egin genuen oparo. Horiek guztioriek animatuta prestakuntza plan bat antolatzea pentsatu genuen gure sagarrondoak zaintzeko zaletasuna bultzatzeko asmoz; inausketa, ongarriketa, gaixotasunak, ilargiaren eragina, barietateak, bertako barietateak...gai asko dira eta adar askokoak eta guztietan sakontzea ezinezkoa dela jakitun, halako oinarri eta irizpide komun bat ezartzea izan da gure helburua; hortik aurrera, norberak, bere zaletasun, dedikazio eta iaotasunaren arabera jasoko du bere uzta.

Irakasle aditubatekin (Aitor Etxeandia frutagintza teknikaria eta aholkularia da) harremanetan jarrita urtean zehar garatzeko egitaraua eta egunak zehaztu genituen, garaian garaiko lan eta zeregin guztiei errepeaso bat emateko asmoarekin: saio bat neguan, beste bat udaberrian (udari begira) eta hirugarrena uda bukeran -guztira hamabost bat ordu-; hori da plangintza eta horri heldu diogu jada.



Deialdia herritarren artean zabaldu eta, berriro ere, erantzuna uste baino positiboagoa izan da, hainbestearino non gure aurrikuspenak bikoiztu egin diren: 20-25 kidez osatutako talde bat irudikatzen genuen baina 56 pertsonak eman dute izena eta guztiei erantzun egokia eman asmoz bi talde antolatu ditugu.

Honezkero egin dugu neguko saioa (otsailaren 20an, larunbatez, talde bat Ozaetan eta otsailaren 26an, ostiral arratsaldean, Larrean) eta neguko inausketa, teorian, nola egin behar den ondo ikasita dugunez orain praktikan jartzea tokatzen zaigu. Ea udaberrikoak eta udakoak egoki aprobetxatzen ditugun eta udazkenean uzta polita biltzen dugun. Hala bedi!

Aipatu behar dugu bukatzeko ikastaroa Barrundiako Ekonomatoa eta Udalaren arteko lankidetzan

antolatu dugula, sagar zukua egiteko joan den urteko esperientziaren segida moduan eta, kasu honetan, ASSEekin (Arabako Sagardoa eta Sagardogileen Elkartearekin) koordinatuta burutu dugu.

BARRUNDIAKO HAURRESKOLA

- Herriko haurreskola txikia, haurrak beraien erritmo propioan garatzeko espazioa.
- Autonomiarako behar duten espazio, denbora eta material egokiak eskaitzen dizkiegu.
- Kanpoko espazioa ezinbestekoa da gure egunerokoan, naturarekin bat jolastearen garrantzia goraipatzen dugu.



Ezagutzea nahi bagaituzue etorri bildur barik, esku zabalik jasoko zaituztegu!!

Izen ematea zabalik dago denbora jarraiean (matrikulazio data itxaron gabe, edozein momentutan)

Telefona: 945 317426 Emaila: barrundia.barrundia@haurreskolak.net

MINTZALAGUN**Zer da mintzalaguna?**

Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duzuenak ohitura duzuenekin elkartzea du helburu mintzalagunak, hizkuntza ohituretan eragin eta gune euskaldun berriak sortu eta indartu asmoz. Euskaraz hitz egiteko aukerarik ez duzueni edo ikasten ari zaretenei lagun artean eta giro atseginean euskaraz aritzeko aukera eskaini nahi dizuegu.

Arrazoi asko egon daitezke mintzalagunean izen emateko: euskara norekin praktikatu ez izatea, euskara maila hobetu nahi izatea, hizkuntza erdi ahaztuta izatea edota hizkuntza menderatzen duzuenen kasuan, euskara praktikatu nahi dutenei lagundu nahi izatea.

Nola funtzionatzen du?

Euskara maila, zaletasunak eta ordutegia kontutan hartuta, astean behin elkartzea da gure asmoa. Horrez gain, beste ekintzak ere egin ditzakegu, esate baterako, zinemara, antzerkera, mendiko txangoak eta abar, modu natural batean.

Parte hartu nahi duzu?

Ostiraletan, arratsaldeko 8etan Ozaetako tabernan elkartuko gara ezagutzeko eta jakiteko zer beste egunetan eta zer ordutegian datorkigu ondo topatzeko.

